



ZINEMA ERAIKITZEN

ARAUDIA

Zinema Eraikitzen Donostia Zinemaldiaren eta Toulouse (Frantzia) Rencontres Cinémas d'Amérique Latine topaketaren artean antolatutako ekimena da. Postprodukzio fasean dauden Latinoamerikako film luzeak amaitzeko erraztasunak ematea eta horiek nazioartean hedatzea du helburu. Profesionalek –ekoizleak, banatzaileak, erakusleak, erosleak, telebistak, industria teknikoak, laguntza funtsak, zinema jaialdietako programatzaileak eta erakundeak– soilik ikusten dituzte, ekoizpen horiek bukatu eta banatu ahal izan daitezen laguntzeko, eta hala, ikusleengana heltzeko.

Ekimena ondoko oinarri hauen arabera erregulatzen da:

- 1.- Zinema Eraikitzen urtean bi aldiz egiten da. Lehen martxoan izaten da, Toulouseko Rencontres Cinémas d'Amérique Latine topaketan (<http://www.cinelatino.com.fr/>). Bigarrena, ordea, irailean izaten da, Donostia Zinemaldian (<http://www.sansebastianfestival.com/>). Bai Toulouseko Rencontres Cinémas d'Amérique Latine topaketak, bai Donostia Zinemaldiak deialdiak argitaratuko dituzte, hedabideetan eta beren web orrietan.
- 2.- Bi deialdietara postprodukzio fasean dauden eta Latinoamerikako herrialdeek osorik edo zati batean ekoitzi dituzten film luzeak aurkez daitezke.
- 3.- Bi deialdietan, Toulouseko Rencontres Cinémas d'Amérique Latine topaketako eta Donostia Zinemaldiko hautaketa batzordeek elkarrekin aukeratuko dituzte erakutsiko dituzten filmak.
4. Interesdunek doan eman ahal izango dute izena, formulario bat behar bezala beteta. Era berean, filmatutako materialaren 3 DVD bidali beharko dituzte, emandako epean, deialdi bakoitzean zehaztutako helbideetara. Gainera, filma ez bada go gaztelaniaz eginda, gaztelaniazko, ingelesezko edo frantsesezko azpigituluak izan beharko ditu. Bidalitako materiala ez da itzuliko. Bidaltzen den gutun-azalean, ondoko esaldia argi adierazi beharko da: «Merkataritza baliorik gabeko materiala. Erabilera kulturalerako soilik». Antolatzaileek ez dituzte bidalketaren gastuak estaliko.
- 5.- Seina film aukeratuko dira bi deialdietarako. Antolakuntzak kopuru hori handitzeko eskubidea du, egokitzen jotzen badu.
- 6.- Proiektuak aukeratzeko erabakia apelaezina izango da.
- 7.- Aukeratutako proiektuek nahitaez baieztatu beharko dute Toulouseko eta/edo Donostiako Zinema Eraikitzen topaketan parte hartuko dutela, eta horretarako, antolatzaileek katalogoak edo web orriak prestatzeko behar duten informazio-materiala bidali beharko dute.

8.- Epaimahaiek ezingo dituzte sariak eman gabe utzi. Epaimahaiek emandako sariak apelaezinak izango dira.

- Toulouseko deialdiko Zinema Eraikitzen sariak:

- Toulouseko Zinema Eraikitzen sariak film irabazlearen postprodukzioa egiteko zerbitzuak eta berau sustatzeko zerbitzuak eta ekimenak hartzen ditu barne, eta kide tutako ondoko enpresa hauek emango dituzte: CNC, Mac'tari, Titra TVS, Europa Distribution, CICAÉ eta CCAS.

- CINE + sariaren bidez, CINE+ telebista kateak irabazten duen filma Frantziako banatzaile bati erosiko dio, 15.000 euroren truke, eta telebistan emango du, Frantzia estreinatu ondoren.

- Donostiako deialdiko Zinema Eraikitzen sariak:

- Industriaren Zinema Eraikitzen sariaren bidez, film baten postprodukzioa egingo dute, ingelesez azpigitulaturako 35 mm-ko kopia lortu arte eta filmaren banaketa Espainian.

Best Digital, Dolby, Imasblue, Kodak (zinema profesionalaren atala), Nephilim producciones, No Problem Sonido, Technicolor Entertainment Services Spain eta Vértigo Films enpresak arduratuko dira filmaren postprodukzioaz, ingelesez azpigitulaturako 35 mm-ko kopia lortu arte eta filmaren banaketa Espainian.

- Latinoamerikako zinemaren postprodukzioarako Amerika Etxearen saria, 10.000 euro gordinekoa da.

Gainera, Zinema Eraikitzen programan parte hartzen duten filmek nazioartean zabaltzeko aukera dute, Cervantes Institutuaren munduko sarearen bidez.

9.- Antolatzaileek Zinema Eraikitzen sailean parte hartu duten filmen aukeraketa proposamenak egin ahal izango dituzte, beren programazioetan.

10.- Aukeratutako film guztietan Zinema Eraikitzen ekimenaren logotipoa eta «Zinema Eraikitzen ekimenaren laguntzarekin» esaldia behin betiko kopiaren hasierako kredituetan eta promozio materialetan jartzeko konpromisoa hartuko dute egileek. Logotipoa Zinema Eraikitzen ekimenaren antolatzaileek bidaliko diete, eskatzen dutenean.